

## 4. DIRU-SARRERAK

Hasteko, gure produktua egiteko eta behar ditugun materialak erosteko bankuari mailegu bat eskatuko diogu, gure produktua aurrera eramateko hasieran inbertsio handi bat egin beharko baitugu.

Gure diru-sarrerak ordainketa bakarrekoak izango dira, eta gure produktuaren prezioa finkoa izango da, hau da, CD guztiak prezio berdinean salduko ditugu. Gainera, hainbat ekintzen bidez gure diru-sarrerak handitzen saiatuko gara. Gure enpresan sortutako CD bakoitzak 10€-ko prezioa izango du. Gure bezeroak efektiboan edo txartela bidez ordaintzeko aukera izango dute. Gainera, gure web orrialdean internetetik ordaintzeko aukera ere izango dute.

Irabazten dugun %70 guretzat gordeko dugu eta gainontzekoa hornitzaileei emango diegu.

